

HAMAR

# MOBILIZAZIORAKO

A R R A Z O I A K



Euskal Herriko

BAKEAREN ALDEKO

Koordinakundea

Duela 15 urtetik, Euskal Herriko **BAKEAREN ALDE**ko Koordinakundeak, gatzaka bortitzarekin zerikusia dukeen hilketa bat gertatutakoan, 130 elkarretaratze isil baino gehiagotara dei egiten du. Kontzentraziook hilketaren hurrengo egunera burutzen dira, gaueko 12'00ak egun batetik besterako muga duelarik.

✉ [gesto@kender.es](mailto:gesto@kender.es)  
🌐 [www.gesto.org](http://www.gesto.org)

**Bizkaia:**  
📍 10.152 - 48080 Bilbao  
☎ 944 16 39 29  
📠 944 15 32 85

**Alava:**  
📍 2.063 - 01080 Vitoria-Gasteiz  
☎ 945 22 68 38

**Gipuzkoa:**  
📍 5.005 - 20080 Donostia  
☎ 943 21 09 06

**Navarra:**  
📍 176 - 31080 Iruña-Pamplona  
☎ 948 22 31 35

## Zergatik mobilizatu bakearen alde?

- Biolentziari eta sostengua ematen diotenei aurre egiten diegun pertsona askoren ekinbide zibikoa erakusten duelako.
- Indarkeriaren ankerkeria jasaten dutenenganako elkartasuna adierazten duelako.
- Berez ikasbide demokratikoa baita, etorkizuna itxaropenez ikusarazaten diguna.
- Bortizkeria darabiltenek euskal gizartearen gidariak direla aldarrikatzen baitute.

## Zergatik bat eginda mobilizatu?

- Biolentziari muzin eta biktimei elkartasuna adierazteko ez baita beharrezko pentsamolde politiko bat eta bakarra partitzea.
- Zeren eta, bakearen aldeko lanak oinarri etikoa baitarama berekin, mobilizazio hauetatik kanpo geratu behar den edozein alderdi-eskaera baino lehenago, hartara indarkeriari erantzun eta aurre egiteko adostasuna aukeratuz.
- Terrorismoan aritzen edo arrazoitzen dutenen aurrean, bakearen aldeko mobilizazioan batera eta elkarturik joatea ezinbestekoa baita.

## Zergatik isilik mobilizatu?

- Isiltasuna bera adierazpen bakegileena baita, gure elkarte bezala, non isiltasuna ez den biolentziaren nahietara egokitzen, ez eta balore demokratikoetan pasibo edo esanahi bikoitzeko ere; isiltasunak, azken finean, kaleak etikaren indarrak jutzen baititu.
- Isiltasunak gutziz bestelako ideologiadun pertsonak, bortizkeriaren aurka eta bakearen alde agertzeko bidea ematen baitu.
- Era kritiko zein pertsonalean hausnartzen laguntzen duelako, eguneroko bizimodu zaratatsuan gure herri-hirikideei arreta erakarriz.